

**HAUTESKUNDEAK ARRATIAN (1923-1936)**

*Abertzaletasunaren hedapena*

MIKEL ETXEBARRIA ETXEITA

## METODOLOGIA OHARRAK

Lantxo honen helburua, Arratian emon zan abertzaletasunaren hedapenari buruzko argitasun bat emotea besterik ez da eta horretarako hauteskundeak erabiliko ditugu, batez ere II Errepublikako garaiko hauteskundeak.

Lantxo honetan jarraitu dogun metodologiari buruzko ohar batzuk azalduko ditut:

— Hauteskundeetako hautagiak abertzale eta ez abertzale taldeetan banatuko ditut. Behar bada ez da izango banaketarik zehatzena, talde bietan ezberdintasunak dagozelako; abertzale talde barruan Eusko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Abertzale Ekintza eta ez abertzaleen talde barruan, tradizionalistak, liberalak, sozialistak, errepublikarrak eta komunistak. Banaketa egin dodan eran egiteko arrazioa, abertzaletasunaren hedapena neurtzea nahi izan dodala izan da, eta bestalde, egia esan, Arratian gauzak argi dagoz: abertzaleak esaterakoan ea beti Eusko Alderdi Jeltzaleari, lehenengo bizkaitarrei, buruz berbaz ari gara, eta ez abertzaleak esaterakoan gehien baten tradizionalistei, lehenengo karlistei, buruz berbaz ari gara.

— Lantxoa, berez, II Errepublika garaian kokatzen da, baina interesgarria iruditu jaku 1923. urteko hauteskundeak hartzea ere, arrazioa abiapuntu bat bilatzea izan da, bai hauteskunde orokorretan, bai lurralde hauteskundeetan.

— 1931ko Udal Hauteskundeak neurtzerakoan, ez dogu lortutako botu kopururik erabili. Kalkuloak egiteko udal bakoitzeko zinegotzien banaketa erabili dogu, hauteskundeen boto emaitza bilatzea ezina egin jaku eta. Behar bada erabilkera honek errealitatea zeozer eskutazen dau, batez ere, Areatzako kasuan.

1931ko Hauteskunde Orokorrak ez ditugu erabili, gauzak argitzeko balio ez dabelako eta honen arrazioa hau da: hauteskunde horretan abertzaleak eta tradizionalistak batera aurkeztu ziran. Lizarrako Estatutoaren

aldeko hautagai-zerrenda batetan, eta Bizkaia eta Arratia guztian irabazle agertu ziran. Arazoa da, batera joan zirenez, abertzale eta tradizionalisten bakoitzen indarra neurri ezina bihurtzen dala, eta errepublikarren indarra oso txikia izan zan bestalde, kontutan ez hartzeko modukoa.

— Lantxoan agertzen diran grafikoak era bitakoak dira:

a) Hauteskunde bakoitzeko herri ezberdinetan eta Arratia aran moduan harturik, emon ziran emaitzak adierazten dauskuenak.

b) Herri bakoitzak eta Arratiak hauteskunde ezberdinetan zehar agertu daben joera ezberdina adierazten dauskuenak, bai herri bakoitza bere aldetik eta bai, herri guztiak batera.

— Lantxo honen egitura honako hau da:

a) Hauteskunde bakoitzaren azterketa.

b) Herri bakoitzaren azterketa.

d) Ondorio nagusienak.

## HAUTESKUNDEEN AZTERKETA

### 1923ko APIRILAK 29ko HAUTESKUNDE OROKORRAK

Hauteskunde honeetan hautagai bi aurkezten dira: Victor Chavarri eta Teodoro Arozena Muñuzuri.

Victor Chavarri «Liga Monárquica» alderdikoa da, eskumatarra eta lantegi askoren jabea. Bizkaiko industriagintzan garrantzi handiko gizon bat dogu, Bizkaia industrializatzeko egin ebazan ahaleginagatik Triano-ko Markes izendapena emon eutson Bizkaiko Aldundiak.

Teodoro Arozena Muñuzuri, «Comunión Nacionalista Vasca»ko hauta-gaia dogu.

Hautagai biok Durangoko barrutian aurkezten dira eta irabazlea Victor Chavarri izango da. Hauteskunde honeek 1907. urteko Hauteskunde Lege-raren arabera egiten dira eta Lege honek, hauteskunde-barruti txikiak sor-tuaz eta barruti bakoitzean persona bat bakarrik aukeratuz, jauntxokeria eta boto erosketari bideak zabaltzen dautsoz. Garai honetako hauteskun-deetan jauntxokeriak (Jabe batek bere maizterraren botoa kontrolatzen dau) eta boto erosketak sarri emoten dira.

Hauteskundeen emaitzari buruz zera esan daikegu: abertzaletasunak ez dauka indar handirik eta gehien daukan tokia Artea da (%43,54) eta txi-kiena Dima (%13,40). Beste herri guztiak %20-%30 inguruan dagoz. Arra-tia guztian abertzaleak %24,09 ateratzen dabe. Ikusten dogunez, indar urria benetan. Ahulezia hau ulertzeko kontutan euki behar dogu aipatu-tako jauntxokeria eta boto-erosketak, eskumatarrak (Karlístak eta tradizio-nalístak) ziran baserri gehien eta diru gehien eukenak, eta abertzale mugimenduaren gaztetasuna eta barne-arazoak: garai honetan Eusko Alderdi Jeltzalea (E.A.J.) zatituta dago, alde batetik «Comunión Nacionalista Vas-ca» eta bestetik «Partido Nacionalista Vasco» zatiketa hau oso kaltegarria izango da E.A.J.-rentzat, batez ere, hauteskunde garaian. Zatiketa hau 1916. urtean sortzen da eta 1930, urterarte iraungo dau.

Hauteskunde honetara ez da ezker hautagairik aurkezten. Sozialistek eta Errepublikarrek ez dauke indarririk Durangoko barrutian eta are txikiagoa Arratian; indar-ez hau guztiz ulerterreza da, Arratia aldean lantegi haundirik ez dagoela eta jendea nekazaritza bizi dala kontutan hartzen badogu. Industria gabeko tokian ezkerak ez dauka indarririk.

Hauteskunde honeetan emakumeek ez dabe botoa emoteko eskubiderik. Espainiako Estatuan emakumeek 1933.eko hauteskunderarte ez dabe boto eskubiderik lortzen.

### 1923ko EKAINAK 10ko HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde honeetan Bizkaiko Aldundiko partaideak aukeratzen dira eta hauteskunde-barrutia haunditu egiten da, oraingo honetan Durango-Markina barrutia izango da.

Hautagai zerrenda bi aurkezten dira:

— Monarkizaleak: Alejandro Larrea Echanove, Enrique Ornilla Larrazabal eta Manuel Alonso Aguirre-Sarasua.

— Eusko Alderdi Jeltzalea: Luis M.<sup>a</sup> Larrea Sustacha, Fernando Malax-Echevarria Maguregui eta Jose M.<sup>a</sup> Rotaèche Velasco.

Aipatzekoa da Jose M.<sup>a</sup> Rotaèche Velasco hautagaia. Jaun hau Zeanuri aldean ezaguna zan, bertan lurak eukazalako eta honek bere eragina euki eban hauteskundeetan, honela Zeanuriko Plazako hauteskunde-mahaiian (besteia Undurragakoa zan), beste hautagai abertzale biak baino boto gehiago lortzen dau.

Hauteskunde honeen emaitzei buruz, zera esan daikegu: Artea izango dala abertzaleek lehenengoz irabazten daben herria %51,98 lorturik eta bestalde, Areatza izango dala abertzaleek boto gitxien jasoko daben herria %20,26. Arratia guztian abertzaleek %34,76 lortuko dabe.

### 1931ko APIRILAK 12ko UDAL HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde honeek, historian, garai barri bat ekartzen dabe. II Errepublikaren garaia. Espainiako Estatu eta Euskal Herria hain zuzen, Primo de Rivera generalaren diktadurapean izan dira 1932ko Irailak 13-tik hasita. Diktadura horretan abertzaleek klandestinitatera jo beharra dauke. Baina, hala ere, abertzaletasunaren indarra ez da ahultzen, indartzen baino. Abertzale mugimenduak politika ekintza publikorik egin ezin dauen arren, bere lana kultura mugimenduaren bitartez jarraituko dau. Diktadurapean kultura ekintzak ugaritzen dira eta kultura ekintzen bidez abertzaletasuna hedatzen doa. Arratian ere, abertzaletasuna indartuz doa eta Udal Hauteskunde honeek horren ezaugarri bat dira. Arratia guztian aukeratuak izan ziren 71 zinegotzitik 38 zinegotzi (%53,52) Eusko Alderdi Jeltzalekoak dira

eta aukeratutako zortzi alkatetik sei Eusko Alderdi Jeltzalekoak dira eta bi karlistak (Areatza eta Bedia).

Zinegotzi abertzale gehien daukan herria Arantzazu dogu, sei zinegotzitik bost abertzaleak dira (%83,33) eta gitxien daukan herria Areatza, zortzi zinegotzitik zortziak karlistak dira (% 100). Areatzako abertzaletasun eza nabaria da Arratia guztian eta jokabide honek urte askotan irauten dau.

Aipatu behar dogu, ere, Artea eta Diman ez dala hauteskunderik ospatzen, bertako zinegotziak Hauteskunde Legearen 29. atalaren arabera aukeratzen dira eta atal honek hau agintzen dau: herri batetan aukeratu behar diren zinegotzi beste hautagai aurkezten badira, hautagai honeek zuzenean zinegotzi bihurtuko direla.

### **1933ko AZAROAK 19ko HAUTESKUNDE OROKORRAK**

Hauteskunde honek abertzaletasunaren mugimenduaren nagusitasuna adieraziko dabe. II Errepublika jarri zanetik, abertzaleak Estatutoaren alde lanean ibili dira, horretarako 1931.eko Hauteskunde Orokorretan tradizionalistekin batera joan ziren, hauteskundeak irabaziz eta Espainiako Legebiltzarrean «Minoria Vasco-Navarra» delako Legebiltzarkide taldea sorturik. Talde hau 1932.eko Ekainak 19an Iruinan ospatutako Estatutoaren aldeko Udalen Batzarrean apurtuko da. Batzar horretan, abertzaleak eta sozialistak Estatutoaren bigarren proiektu baten alde agertuko dira eta tradizionalistak aurka, Nafarroa estatuto bidetik urrindurik. Arazo hau dala eta, hiru lurraldeetara (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) mugatuko dan proiektu barri bat egin beharra dago. Eta proiektu hau hiru lurraldeko udalek, Gasteizen 1933ko Abuztuak 6an izango daben Batzarran onartuko dabe. Proiektu horren erreferenduma 1933ko Azaroaren 5an egingo da eta onartua izango da. Erreferendum hau abertzaleek errez irabazi eben, batez ere, Bizkaian eta lortutako arrakasta hau, handik 14 egunetara ospatzen diren Hauteskunde Orokorretan lagungarri izango jake.

Hauteskunde Legean aldaketak egiten dira, 1931ko Maiatzak 8ko Dekretuaren bitartez botoa emoteko beharrezko dan adina 25 urtetik 23 urtera jeisten da. Hiru hautagai aukeratu behar direnean, hautale bakoitzak biri bakarrik emoten dautso botoa. 1933ko Uztailaren 27ko Legearen bitartez emakumeek botoa emoteko eskubidea lortzen dabe. Azken aldaketa honek tradizionalistei eta abertzaleei lagunduko dautse. Aipatzekoa da, ere, Eusko Alderdi Jeltzale barruko zatiketa desagertu dala, 1930ko Azaroak 30an, Bergaran egindako Batasun Batzarrean zati biak «Comunión Nacionalista Vasca» eta «Partido Nacionalista Vasco» elkartzen dira; Batzar berean, beste talde abertzale bat ere, sortzen da: Eusko Abertzale Ekintza-Acción Nacionalista Vasca, baina talde horrek Arratian ez dau eraginik izango, bakar bakarrik Bedian baten batzuk egongo dira, baina besterik ez.

Hauteskundeetara hiru hautagai-zerrenda aurkezten dira:

- a) Abertzaleak (E.A.J.) Jose Antonio Aguirre, Heliodoro de la Torre.
- b) Tradizionalistak: Marcelino Oreja, Jose M.<sup>a</sup> Areilza.
- d) Errepublikarrak: Ernesto Ercoreca, Joaquin Bustos.

Guztira sei hautagai eta hiru aukeratu behar, hautale bakoitzak botoa biri emenez. Bizkaia lurralde-barruti honetan hautatuak Aguirre eta Oreja izango dira.

Arratian abertzaleen indarra nabaria da, herri guztietan, Areatzan izan ezik, abertzaleek irabazte dabe. %60 baino boto gehiago lorturik. Boto gehien lortzen daben herria Bedia (%75,28) eta gitxiien Areatza (%40,05). Arratia guztia kontutan harturik abertzaleek %63,43 ateratzen dabe.

Errepublikarrek inon ez dabe ezer ateratzen, herri bitan izan ezik: Bedian tradizionalistak baino zeozer gehiago ateratzen dabe (% 12,93) eta Lemoan tradizionalisten erdia ateratzen dabe.

Hauteskunde honeetan tradizionalistek jauntxokeriaz jokatu gura dabe eta era honetan, Pilar Careaga bere maizterrei «Botoa erosten» joan jaken baina badirudi bidean Igorreko abertzale gazte batzuk agertu jakozala eta bera, kotxe eta guzti, Indusiko troka batetara bota ebela. Ekintza honegatik gazte batzuk Durangora espetxeratuak izan ziran (1).

## 1936ko OTSAILAK 16ko HAUTESKUNDE OROKORRAK

Hauteskunde honeek guda zibila aurreko azken hauteskundeak izango dira. 1933tik 1936era Estatuan politika tira-bira asko egon dira, 1933ko hauteskundeen ondorioz eskumako Gobernu bat sortzen da eta Gobernu horrek arazo gogorak zuzendu behar ditu, Espainia mailan 1934. urteko Urriko gatazka, eta ekonomia egoera larria, Kataluinan ere, arazo ugari dagoz, bertako Gobernu Autonomiadun eta Gobernu Zentralaren arteko hartuemonak oso latzak dira, batez ere. 1934ko Apirilak 12an Kataluinan Legebiltzarrak onartutako «ley de Contratos de Cultivos» delakoagatik. Euskal Herrian ere, eskumako (C.E.D.A.) Gobernuarekin arazoak sortzen dira, aipatzekoak dira, 1934ko Uztailean Gobernu Zentralak Ekonomia Itunearen aurka egin ebazan ekintzak eta abertzaleen erantzun gogorra.

Hauteskundeetara hiru hautagai-zerrenda aurkezten dira:

- a) Abertzaleak (E.A.J.) Jose Antonio Aguirre, Heliodoro de la Torre eta Julio Jauregui.
- b) Tradizionalistak: Jose Luis Gaytan de Ayala, Santiago Martinez de Rivas.
- d) «Frente Popular»: Paulino Gomez, Alfredo Espinosa.

Hauteskunde horretan abertzaleak (E.A.J.) dana irabazteko asmoz doaz («Al copo»). Hiru diputatu aukeratu behar ziran Bizkaia Lurralde-

barrutian eta hautale bakoitzak hautagai biri bakarrik emoten dautso bere botoa. Hau dala eta, alderdi bakoitzak hautagai bi baino ez ebazan aurkezten botoak ez banatzeko, baina oraingoan E.A.J.-k hiru aurkezten ditu eta herri bakoitzean zein hautagai biri botoa emon esango dau, honela hiru hautagaiak irabazle aterako dira eta diputatu akta guztiak lortuko dabez tradizionalistak diputatu barik geratzen direlarik. Arratian banaketa honela egiten da: Aranzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre eta Zeanurin botoa Aguirre eta De la Torre-ri eta Bedian eta Lemoan De la Torre eta Jauregui-ri.

Hauteskundeak Otsailak 16an ospatzen dira baina bigarren txandara jo beharra dago, Hauteskunde Legeak honela arautzen eban arazo hau: Lehen txandan emandako botoen %40 lortzen eban hautagaiak irabazle urtetzen eban eta berarekin batera %20 lortzen eben hautagaiak. Lehen txandan inork ez baeban %40 lortu, bigarren txandara jo beharra egoan eta bigarren txanda hau, aste bi beranduago ospatzen zan, eta lehen txandan emondako botoen %8 atara ebezan hautagaiak bakarrik euken parte hartzeko eskubidea.

Bigarren txanda Martxoak lean ospatzen da eta abertzaleek irabazle urtetzen dabe herri guztietan Areatzan izan ezik. Abertzale boto gehien atera duen herria Arantzazu da (%70) eta gitxien Areatza (%39,79). Arratia osoa harturik abertzaleak %59,19 lortzen dabe.

«Frente popular» delako hautagiek ez dabe botorik lortzen, gehien Bedian (%16,97). Aipatzekoa da, ere, Igorreko Elejalde hauteskundemahaiaren irabazle Jose Luis Gaytan de Ayala agertzen dala.

Areatzan hauteskunde egunean arazoak dagoz, eguerdiko ordu biak laurden gitxiagotan hauteskunde-mahaiaren lehendakariak, Pedro Igunkak, laguntzaileei ezer esan barik, Policarpo Zuloaga eta Luciano Martinez-i (2), hauteskundeak amaitutzat emoten dauz eta mahaitik alde egiten dau. Hau dala eta hauteskundeak urrengo Martitzenera, Martxoak 3, atzeratzen dira eta egun horretan jende gitxik hartzen dau parte, hauteskudeen emaitzak Bizkaian jakinak zirelako.

Hauteskunde egunean Areatzan tradizionalista taldea urduri ei ebilela esan daikegu, bertako monarkiko batek Candida Olivares Bengoa, andra abertzaleari, botoa erosi nahi eutson eta (3).



## HERRI BAKOITZEKO HAUTESKUNDE BILAKAERA

### ARANZAZU

Herri honen hauteskunde bilakaerak abertzaletasunaren hedapena eta indarra adierazten daukuz. Bilakaera honetan garai ezberdin bi agertzen jakuz: 1923. urteko garaia eta II Errepublikakoa. Eusko Alderdi Jeltzalea Arantzazun II Errepublika garaian guztiz indartsu agertzen jaku, Arratiako indartsuena, hor dago lekuko 1931ko Udal hauteskundeetan sei zinegotzitik bost lortzea, eta 1933ko Hauteskunde Orokorretan guztira emondako 243 bototik 175 boto lortzea (%72,01), barriro ere, Arratien ehunekorik gorena.

Aipatzekoa dogu, Bizkai Buru Batzarraren 1933ko txostenak dinoskuna: herriko botu abertzaleen kopuruaren arabera, E.A.J.-ko bazkide gehien daukan Bizkaiko laugarren herria Aranzazu dala (4). Beraz, bataz beste, alderdikide bakoitzak lortu dauan boto kopurua txikia izan dala. Kontutan hartzen badogu, 1933ko hauteskundeetan botoen %72,01 lortu dauana E.A.J.-k Aranzazun bazkide nahiko daukazala esan daikegu.

### AREATZA

Herri hau dogu Arratian abertzaletasunak indarririk txikiena eukiko dauana. Aztartzen dogun garai osoan abertzaleek ez dabe inoiz gehiengorik lortzen, 1923. urtean abertzaleak botoen %20aren inguruan dagoz eta II Errepublika heltzerakoan %30-40 inguruan ibiliko dira.

II Errepublika datorrenean, E.A.J., berriro ere, antolatzen da eta 1930ko Abenduak 21an ospatuko dan E.A.J.ko Bizkaiko Erki Batzarrean Areatzak parte hartzen dau, bere ordezkaria Jeronimo Ortiz de Zarate eta ordezkari-ordea Victor de Azpeitia direlarik, heuren ordezkari agirian agertzen danez, Abenduan egindako Uri-batzarrean aukeratuak izan dira, E.A.J.-k daukazan 24 bazkidetatik bertan 22 dagozalarik (5).

1931ko Udal hauteskundeetan E.A.J.-k ez dau zinegotzirik lortzen, herriko Udala tradizionalista hutsez osatuko da eta abertzaleak oso giro latz batetan aurkituko dira eta honen lekuko 1932. urteko Aberri Egunaren inguruan sortu dan arazoa dogu, Areatzako E.A.J.-ko Uri Buru Batzarreko idazkaria dan Manuel de Soplanak, 1932ko Martxoak 29an Euzko Idalbatza Buruari (B.B.B.-ren lanak betetzen dauan erakundeari) idatzi bat zuzentzen dautso eta bertan 1932ko Aberri Eguneko ospakizunak herriko Alkateak, Lucas de Zamaconak galazo dituela, Guardia Zibila jakineraziz, eta Zeanurin ospatu behar izan dabezala bertako Alkatearen baimenaz (Eleuterio Goicoechea Goicouria abertzalea) adierazten dautso; eta idatziaren amaieran esaten dautso: «Guzti hau adierazten dautsut daukagun jazarpenaz konturatu zaitez» (6).

1933ko Hauteskunde Orokorretan abertzaleek inoiz baino boto gehiago lortuko dabe %40,05, kontutan hartu beharra dago 1933ko hauteskundeak E.A.J.- arrakasta haundiena lortu dauan hauteskundeak dirala eta 14 egun lehenago Estatutoaren erreferenduma irabazi dauala. B.B.B.-ko 1933ko txostenak, Areatza herriko boto abertzaleen kopuruaren araberako E.A.J.-ko bazkide gehien daukan bostgarren herria dala dinosku, beraz, botorik gehienak alderdikoengandik datoz, datu honek Areatzako abertzale gehienak bazkidegata dagozala eta bazkideak ez diren artean lortzen dan eragina urria dala adierazten dausku, hau ez da harritzekoa egoera politikoa kontutan harturik.

E.A.J.-ko bazkideen kopurua apurka apurka gorantza doa, 1934ko Urtarrilean Areatzako batzokiak 64 bazkide ditu, bertako lehendakaria Santiago de Berriozabal dalarik eta garai bardinean Areatzako Emakume Abertzale Batzak 82 bazkide ditu, bertako lehendakaria Paula de Uribarri dalarik (7).

1936ko Hauteskunde Orokorretan E.A.J.-k emondako botoen %39,79 lortzen dau. Argi dago, Areatza Arratian tradizionalista gehien eta abertzale gitxien dagoen herria dala, eta horren arrazioa bertako gizarte eta ekonomia egituran datza. Areatza Arratiako hiriburu bat bezalakoa izan da, «Herrikeria» galdu gura izan dau eta horretan bilbotar batzuentzat uda-leku izatea, notaria eta kuartela izatea lagungarri izan dira. Honen araberako, euskeraren atzerakada nabaria eta Arratiako tradizionalisten eta abertzaleen aurkako mugimendu guztia Areatzan antolatzen zala ezin daikegu ahaztu.

## ARTEA

Abertzaleek herri honetan, 1923.eko urteko hauteskundeetan Arratia guztiko emaitzik onenak lortzen dabez, batez ere, 1923ko Lurralde Hauteskundeetan gehiengo lorturik %51,98 eta hau izango da Arratia guztian 1923-1936 garaian, abertzaleek lortuko daben lehen gehiengo.

II Errepublikapean Arteako abertzaleen emaitzak beti %60 inguruan egongo dira, 1931ko Udal hauteskundeetan bederatzi zinegotzitik sei Eusko Alderdi Jeltzalearen izango dira, 1933ko Hauteskunde Orokorretan abertzaleek emondako botoen %62,84 lortuko dabe eta 1936ko Hauteskunde Orokorretan %62,15.

1934. urteko Urtarrilean Arteako batzokiak 91 bazkide ditu (8).

1936ko hauteskunderi buruz zehaztasun bi esango doguz:

a) 1933ko hauteskunderen parean Artea da abertzaleak gitxien jeisten dan Arratiako herria.

b) E.A.E.-A.N.V.-k bere eragina dauka, Arteako U.B.B.-k hauteskundeetan aterako dabezan botoen kalkuloa B.B.B.-ri bidaltzerakoan, ohar-txo batetan zera esaten dautso: E.A.E.-A.N.V.-k hautagairik aurkezten badau, guk (E.A.J.-) 40 boto galduko doguz, bestela 270 boto aterako doguz eta tradizionalistek 160 (9).

Arteako tradizionalistek Areatzako tradizionalistekin hartuemon estuak daukez eta heuren gidaritzapean dagozala esan daikegu, baina, Artean bertan, Arratia mailako tradizionalista bat egongo da. Agustin Tirado, «Tabacalera»ko ordezkaria. 1931ko hauteskundeetan zinegotzi aukeratua izango dana eta abertzaleen arerio legez ezagutua izango dana.

## BEDIA

Herri honetan 1933ko Hauteskunde Orokorretararte ez da abertzaleen gehiengorik ezagutuko. 1923ko hauteskundeetan abertzaleen emaitzak oso urriak dira, batez ere, Hauteskunde Orokorretan %15,05. Urritasun hau zeozer goratzen da urte bereko Lurralde Hauteskundeetan %27,93 lorturik. 1931ko Udal hauteskunderen ondorioz sortzen dan Udal barruan, bederatzi zinegotzitik sei ez dira abertzaleak eta hiru bai, Alkate bezala Higinio Ispuria izango dogu, garai horretan errepublikarra. Esan behar dogu hauteskunde honeetan aukeratutako zinegotziak independente bezala aurkeztu zirela baina alkatea aukeratzekoan abertzale eta ez abertzaleen arteko ezberdintasuna berehala sortzen da. Horrela alkatea aukeratzekoan Higinio Ibarrechevea Barrenecheak, errepublikarrak, sei boto jasotzen ditu (errepublikarren eta tradizionalisten botoak) eta Martin Ocerin Oyarzabalek hiru boto jasotzen ditu (10).

1932. urte inguruan Bediako abertzaleen artean zatiketa bat sortzen da. «Bediako Euzko Gaztedija» alkartetik (abertzaleen batzokia) batzuk alde egiten dabe eta «Bediako Aberi Etxea» sortzen dabe. Badirudi zatiketa honen arrazoiak arazo pertsonaletan oinarritzen direla eta era honetan Bediako Euzko Gaztedija Francisco de Azcuenaga-ren lehendakaritzapean, jauntxo batzuen eskuetan dagoala eta ezer egiten ez danaren aitzakiaz, gazte batzuk, Francisco de Ispizua eta Leandro Leizaren gidaritzapean Aberi-Etxia sortzen dabe, bertan gazte eta jende ugari baturik eta ezpatadantzarien, emakumeen eta mendigoizaleen taldeak sorturik.

Zatiketa hau konpontzeko, E.A.J.ko B.B.B.-k bazkietza epe barri bat zabaltzen dau, 1933ko Apirilak 1-15 artean eta bazkietu direnak 1933ko Apirilak 30ean B.B.B.-ko partaide dan Ruiz del Castaño-ren lehendakari-tzapean Bediako Uri Buru Batzarra sortzen dabe eta bertan U.B.B.-ko lehendakaritzarako Aniceto de Eguileor aukeratzen dabe (11).

1933ko hauteskundeetan abertzaleak irabazle aterako dira emondako botoen %75,28 lorturik eta urte bereko B.B.B.-ren txostenean Bedia izango da urte horretan Bizkaian bazkide gehiketarik haundiena ezagutzen dauan hirugarren herria (12).

1934. urteko Urtarrilean Bediako Euzko Gaztedijak Manuel de Ugarteren lehendakari-tzapean 34 bazkide dauka: Bediako Aberi-Etxiak Victor de Echave-ren lehendakari-tzapean 43 bazkide dauka eta bertako Emakume Abertzale Batzak Maria de Zenarruzabeitiaren lehendakari-tzapean, 36 bazkide dauka.

1936.ko Hauteskunde Orokorretan, E.A.J. jetsi egiten da %56, 47-ra. Honen arrazoia Bedian betidanik ezkerak eta, baita ere, Euzko Abertzale Ekintzak (E.A.E.-A.N.V.) izan dauan hauteskunde eragina da eta azken eragin honen lekuko hau dogu: Bediako U.B.B.-k. 1936ko hauteskunde Orokorren emaitzak zeintzuk izango ete diran B.B.B.-ri bialtzerakoan, honela esaten dabe, E.A.J.-k 200 boto eta besteak 150, baina, E.A.E.-A.N.V.-k ez badau hautagai-zerrendarik aurkezten edo E.A.J.-ko ez dan beste zerrenda bat laguntzen ez badau guk (E.A.J.) 300 boto lortuko gendukez (14).

Bestalde, tradizionalisten eragina ere kontutan hartzekoa da.

## DIMA

1923ko Hauteskunde Orokorretan abertzaleek Arratiako emaitzik urriena lortzen dabe: %13,4, gero, urte bereko Lurralde Hauteskundeetan %25,19ra igoten dabe. II Errepublika garaian gauzak aldatzen dira eta 1931ko Udal Hauteskundeetan 11 zinegotzitik 6 abertzaleak dira eta 5 ez. 1933ko Hauteskunde Orokorretan emandako botoetatik %63,40 lortzen dabe eta 1933ko hauteskundeetan %62,71, hauteskunde bien arteko ezberdintasuna oso txikia dalarik.

Diman tradizionalistak indartsu agertzen dira, batez ere jauntxokeria erabiliz, baina abertzaleen aldeko lurjabeak ere badagoz, eta honetako bat Ignacio Maria de Urrechua, «Rocaverde»-ko Markesa dogu. Honek bere pentsakera eta jokabidea zein dan argi erakusten deusku 1933ko Udal Hauteskunde garaian Dimako U.B.B.-ko lehendakari dan Jose de Atuchari bialdutako eskutitzean: Badirudi Markesaren administradoreak maizterrek tradizionalistei botoa eman beharra eukela esan ei ebal, eta Markesak honela diotso U.B.B.-ko lehendakariari: «Badaki zein alderitakoa nazen eta Euskadiren askatasuna jendaurrean defenditu dodala eta nire helburuen aurka joateko nire izena erabiltzeak izorratuko ninduke» (15).

## IGORRE

1923. urtean aipatutako hauteskuden emaitzak nahiko onak dira abertzaleentzat, Arratian dagoen egoera kontutan hartuta, 1923ko Hauteskunde Orokorretan emandako botoetatik %30,62 lortzen dabe (Arratia mailan %24,09) eta urte bereko Luralde Hauteskundeetan %37,78 (Arratia mailan %34,76).

II Errepublika garaian, E.A.J. barriro ere kaleratzen danean, Igorreko U.B.B. ihardunean jartzen da eta 1930ko Abenduaren 21ean E.A.J.-ko Bizkaiko Erki Batzarrera bere ordezkariak bialtzen ditu: Anselmo Totorica Echevarri ordezkari bezela eta Julian Uriarte Amuriza ordezkariordea bezala. Ordezkari honeek Abenduak 7ko Uri Batzarrean aukeratzen dira, bertan U.B.B.-k dituen 26 bazkidetik 15ek parte hartzen dabelarik.

1931ko Udal hauteskundeetan gehiengo lortzen dabe eta honela, abertzaleek bederatzi zinegotzitik sei zinegotzi lortuko dabez eta tradizionalistek hiru.

Hauteskunde honeetan, Igorreko Aberedunen Alkartarekin itune batetara helduko dira: Alkarte honek bere sendagilea lortu gura eban herriko sendagileaz gain, eta horretan laguntzearen ordeztu E.A.J.-ko hautagai-zerrenda bultzatzea eskaintzen dabe.

Abertzaleek itune honen ondorioz Udal hauteskundeak irabazten dabez baina badirudi, handik urte bira, 1933. urtean arazoa berriro ere agertzen dala, Bizkaiko Sendagile Alkartea aberedunen sendagilearen aurka doala eta Igorreko U.B.B.-ra jotzen dau Aberedunen Alkartea laguntza eske, bere lehendakari dan Ignacio Arriortua jaunaren idatzi baten bitartez, eta bertan, ospatuko diren 1933ko Hauteskunde Orokorretarako abertzaleentzat arazoa konpontzea oso lagungarria izango litzakela, baina horrela ez balitz, heuri laguntzeko prest legokeen beste hautagai-zerrenda bat bultzatuko leukeela dino. Igorreko U.B.B.-k B.B.B.-ri idazten dautso arazo hau aurkeztuz eta gehiengo abertzalea dauan Sendagile Alkartearen aurrean, arazoa konpontzeko behar diren ekintzak egin dazigala eskatuz. Eta arazoa ez konpontzea Igorreko U.B.B.-rentzat oso kaltegarria izango litzakela adieraziz (16).

1936ko Hauteskunde Orokorretan E.A.J.-k emandako botoen %60,05 lortzen dau, aipatzekoa da hauteskunde honeetan Jose Mari Gaytan de Ayala jaunak, hautagai tradizionalistak, lortutako boto kopurua. (Beste hautagai tradizionalista dan Santiago Martinez de las Rivas baino 312 boto gehiago ataratzen dau).

## LEMOA

1923ko hauteskundeetan emaitz ezbardinak emoten dira: Hauteskunde Orokorretan, abertzaleek emandako botoen %29,36 lortzen dabe, Arratiako batazbestekoa %24,09 dalarik: eta Lurralde Hauteskundeetan

%47,73 lortzen dabe, Arratiako batzbestekoa %34,76 dalarik, igoera, beraz, aipatzekoa da.

II Errepublikan heltzerakoan, Lemoako U.B.B. martxan hasten da eta E.A.J.-k 1930.-eko Abenduak 21ean ospatzen dauan Bizkaiko Erki Batzarrean parte hartzen dau, ordezkaria Celestino de Mimentza y Larrinaga eta ordezkari ordea Jose de Oyarzabal y Jaca direlarik. Garai honetan Lemoako U.B.B.-ak 30 bazkide dauka.

1931ko Udal hauteskundeetan abertzaleek bederatziti zinegotzitik 5 lortzen dabez, Victor Linaza Arregui, abertzalea, alkatea aukeratua izango da abertzaleen eta zinegotzi errepublikarra dan Francisco Uriarte jaunaren botoez (18).

1932. urteko Apirilean Lemoako batzokiak, Pedro Barrenechea y Garai-Yurrebaso jaunaren lehendakaritzapean, 97 bazkide dauka, eta Angeles Aranguren Gorricho andrearen lehendakaritzapean eratzen ari dan Emakume Abertzale Batzak 50 bazkide dauka (19).

1933ko Hauteskunde Orokorretan abertzaleek emandako botoen %64,65 lortzen dabe, inoiz baino gehiago, heuren atzean tradizionalistak datoz eta indar apur bategaz errepublikarrak.

1934. urteko Urtarrilean Lemoako batzokiak, Pedro de Ormaechea jaunaren lehendakaritzapean 126 bazkide ditu. 1936.ko Hauteskunde Orokorretan abertzaleek emandako botoen %61,31 lortzen dabe, garai hartan Lemoako U.B.B.-k 126 bazkide daukalarik (20).

Lemoan, aipatzekoa dogu errepublikarren indarra eta honen arrazoiak Lemoan dagoen industria, «Cementos Lemoa» bereziki, da.

## ZEANURI

1923ko hauteskundeetan, Arratiako emaitzen inguruan dagoz: Hauteskunde Orokorretan abertzaleek Zeanurin, emondako botoen %23,67 lortzen dabe (Arratia mailan %24,09) eta Lurralde Hauteskundeetan %37,26 (Arratia mailan %34,67).

Primo de Rivera-ren diktadura amaitzerakoan Zeanuriko U.B.B.-a kaleratzen da eta E.A.J.-ko Abenduak 21ko Bizkaiko Erki Batzarrean parte hartzen dau, Domingo de Manterola ordezkari bezela agintzen dauararik, hile bereko 7an 14 bazkideko Uri Batzarran hautatua izan ondoren (21)

1931ko Udal Hauteskundeetan 10 zinegotzitik 7 lortzen dabez abertzaleek eta Eleuterio Goicoechea Goicuria, abertzalea alkatetzarako aukeratua da.

1933ko Uztailak 25ean, Santiago eguna, «Landeta-Goikoa» etxean eta Zeanuriko U.B.B.-ko lehendakari dan Vicente de Etxezarraga y Artiñano jaunaren lehendakaritzapean Zeanuriko batzokia eratzen da eta bertan batzokiko zuzendaritza autatzen da, Jose Maria de Gorostiaga lehendakaria ateratzen dalarik (22).

1933ko hauteskundeetan abertzaleek emandako botoen %61,58 lortzen dabe eta 1936ko Hauteskunde Orokorretan %57,91.

Zeanurin aipatzekoa da tradizionalisten indarra eta heuren artean Prudencio Lejarza Iturrioz jauna, tradizionalisten buru bezala egiten dauana eta Areatzako tradizionalistekin hartu-emonetan dagoana.

Abertzale alderdian aipatzekoa dogu Jose Maria Rotaече hautagai jaunaren eragina 1923ko Lurralde Hauteskundeetan eta Ignacio de Rotaече jaunarena ere, eta eragin honeen jakitun, Zeanuriko U.B.B.-k 1936ko Hauteskunde Orokorren aurre-emaitzen kalkuloa B.B.B.-ra bialtzerakoan honela esaten dautso: «Ignacio Rotaече jauna hautagai aurkezten bada, plazako hauteskunde mahaian 80 boto gehiago lortuko doguz» (23).

## ONDORIO NAGUSIAK

E.A.J.-ren hedapenak Arratian aldi bi ezagutzen ditu, Primo de Riveraren Diktadura aurreko aldia (1923) eta osteko aldia (II Errepublikakoa).

1923ko garaian E.A.J.-ren egitura eginda dago, herri guztietan botoak lortzen ditu baina ez da alderdi nagusia, bakar bakarrik Artean 1923ko Lurralde Hauteskundeetan irabazle agertzen da, Arratia mailan emondako botoen %34,76 lortzen daualarik.

Diktadura ostean, II Errepublikan, egoera guztiz aldatzen da, E.A.J. geroago eta indartsuago agertzen jaku: 1931ko Udal Hauteskundeetan Arratian aukeratzen diran 71 zinegotzitik 38 lortzen ditu eta 8 alkatetzatik 6 E.A.J. (Bizkaitarrak) izango dira. Hauteskunde arloan, 1933ko Hauteskunde Orokorretan E.A.J.-k gailurra jotzen dau, emandako botoen %63,43 lorturik, ehuneko hau 1936ko Hauteskunde Orokorretan zeozer jeitsiko da, %59,19 lorturik.

Guztia hau kontutan harturik, Primo de Rivera-ren diktadurapean E.A.J.-ren indartze prozesua prestatzen dala esan daikegu. Garai horretan E.A.J.-ren ekintzak galasota dagoz, eta abertzaletasunak politika ekintzarik egin ezinda aurkitzen dalarik, kultura ekintzetara joko dau. Garai horretan hainbat kultur alkarte eta ekintza antolatzen dira, euskera eta euskal folkorearen inguruan eta euskal kultura mugimendu honen bitartez, abertzaletasuna hedatuz doa.

Arratiako herrien artean Areatzak jokabide ezberdin bat eroango dau: herri honetan E.A.J.-ko gehiengorik ez dau inoiz lortuko eta 1933ko Hauteskunde Orokorretararte lortutako emaitzak oso urriak dira: 1923ko Hauteskunde Orokorretan %21,6 Lurralde Hauteskundeetan %20,26 eta 1931ko Udal Hauteskundeetan E.A.J.- ez dau zinegotzi bat ere lortuko, eta sortuko diren udalak zinegotzi tradizionalerik osatuko dira. 1933ko hauteskundeetan E.A.J.-k lortuko dau ordurartereko bere ehunekorik haundiena %40,05 eta 1936ko Hauteskundeetan ea berdin ihardungo dau %39,79. Areatzan tradizionalistak dira nagusi: tradizionalista horreek



lehengo karlista ondorenak dira, baina heuren pentsakeran aldaketa bat emoten da: hasieran karlista foruzale eta euskalzaleak ziran baina gero, abertzaletasuna sortzen eta indartzen danean, abertzaletasunaren arerio amorratuak izango dira. Horrez gainera, Areatza, Arratia mailako tradiziolaisten huri-burua izan da eta bertara joaten ziren beste herrietako tradizionalistak aholku bila.

Arratiako E.A.J.-ko erakundea, II Errepublika garaian geroago eta sendoago agertzen da, 1931. urtean herri guztietan Uri Batzarrak sortzen dira, 1934. urteko E.A.J.-ren aldeko Laguntza-Eguna (Dia de haber) Arratiako herri guztietan eratzen da eta urte horretarako Arratiako herri guztietan batzokiak eraikita dagoz.

E.A.J.-k daukazan sail ezberdinak ere, ihardunean daude herri batzuetan eta honela 1932. urtean Lemoako Emakume Abertzale Batza eratu dago eta 1934. urterako Bedia, Igorre, Areatza, Artea eta Zeanurin ere eratzen da. Lemoan, «Gaztetxuak» ere eratzen dira eta Eusko Mendigoixale Batza Lemoan eta Bedian.

Tradizionalistak izango dira E.A.J.-rekin burrukan egongo dan indar politikoa, 1931 urterarte irabazle agertuko dira, baina handik aurrera galtzaile. II Errepublika heltzerakoan egoera politikoa aldatzen da, abertzaletasunaren indarra geratuezina da, eta aurreko garaietan erabiltzen ziren jauntxokeriak desagertuz doaz. Hala ere, heuren indarra mantenduko dabe, hauteskunde arloan botoen ehunekorik txikiena 1933ko hauteskundeetan lortzen dabe, %36,56 Arratia mailan.

Eskerrak ez dauka ea indarririk Arratian, bakar bakarrik Lemoan eta Bedian eta honen arrazoia industriaren eragina izan daiteke. Industriak langileria dakar eta langileria dagoen tokian ezkerak indarra lortzen dau. Hala ere, ez errepublikarrak, ez Eusko Abertzale Ekintzak ez dabe indar, ez eraketa sendorik agertuko, Bedian 1931. urtean dakigunez «Centro Republicano» delako bat zabaldu eban bertako alkate errepublikarra zan Higinio Ibarrecheveak, baina indar eta iraupen bakoia.

## ERASKINAK

### I ERASKINA

Udalen konposaketa (1931ko Udal hauteskundeen ondorioz)

A = Abertzalea

E = Ez abertzalea

#### ARANZAZU (24)

- A- Gervasio Uria y Vicandi, alkatea
- A- Pedro de Arteche y Bilbao, alkate ordea
- A- Clemente de Yurrebaso y Belamendia
- A- Pedro de Ipiña y Beascochea
- A- Gregorio de Echezarraga y Gorostiaga
- E- Jose de Iturrino y Achaval

#### AREATZA (25)

- E- Lucas Zamacona Ogarabeitia, alkatea
- E- Juan Onandia Arruabarrena
- E- Juan Zuluaga Beldarrain
- E- Jose Arriza Urquiola
- E- Luis Echevarria Acha
- E- Esteban Ipiñazar Madariaga
- E- Leon Elexpe Vizcarregui
- E- Segundo Galindez Larrea

ARTEA (26)

- A- Ricardo Bilbao Madariaga, alkatea
- A- Justo Iturbe, alkate ordea
- A- Juan Jose Iturbe
- A- Juan Bernaola Inchaurre
- A- Narciso Gorostiaga
- A- Alfonso Zuloaga
- E- Agustin Tirado
- E- Jose Maria Bilbao
- E- Francisco del Barrio

BEDIA (27)

- E- Higinio Ibarrevea Barrenechea, alkatea
- E- Angel Barrenechea Zurinaga
- A- Raimundo Mintegui Aguirre
- A- Martin Ocerin Oyarzabal
- E- Remigio Ayesta Yurrebaso
- A- Elias Atucha Recalde
- E- Jose Abasolo Larragoiti
- E- Juan Antonio Atucha Zamalloa
- E- Santiago Echevarria Mugarza

DIMA (28)

- A- Pedro Cortazar Bilbao, alkatea
- A- Jose Atucha Cortazar
- A- Jose Atucha Larrea
- A- Evaristo Buztinza Artabe
- A- Claudio Pujana Arrizabalaga
- A- Braulio Zabala Uriarte
- E- Cecilio Uria Echevarria
- E- Evaristo Echevarria Aguirregoicoa
- E- Benito Arriortua Lecue
- E- Pedro Asua Madariaga
- E- Clemente Basterra Bengoa

IGORRE (29)

- A- Anselmo Totorica Echevarri, alkatea
- A- Pedro Aquesolo Arriortu
- A- Domingo Berasaluce Amorrortu
- A- Julian Uriarte Amuriza
- A- Emilio Ibarrondo Aguirregoicoa
- A- Jose Antonio Elezcano Uribarri
- E- Francisco Erezcano Sagarraga
- E- Clemente Antonio Echevarria Amorrortu
- E- Asensio Asua Madariaga

LEMOA (30)

- A- Victor Linaza Arregui, alkatea
- A- Gregorio Aristondo Zarandona
- E- Francisco Urrutia Arrieta
- A- Jose Maria Gil Echevarria
- A- Ildefonso Echevarria Larrabide
- A- Juan Antonio Barrenechea Barinaga
- E- Juan Pedro Zubero Incurbe
- E- Guillermo Llona Olea
- E- Miguel Iturrioz Linaza

ZEANURI (31)

- A- Eleuterio Goicoechea Goicuria
- A- Felipe de Manterola y Urigoitia
- E- Sotero Bernaola Uriarte
- A- Prudencio Apoita Lejarza
- E- Antonio Zuloaga Uriarte
- A- Leon Zuloaga Beldarrain
- A- Vicente Gortazar Manterola
- E- Prudencio Lejarza Iturrioz
- A- Francisco Ocerinjauregui Zuloaga
- A- Felix Uriarte Orbastain

II ERASKINA  
(32)

1934KO EUSKO ALDERDI JELTZALEKO  
«LAGUNTZA EGUNA»REN ERAKETA ARRATIA

HERRIA	NON	BATZOKIKO ARDURADUNA	U.B.B.-KOARDURADUNA (Uri Buru Batzarra)	E.A.B.-KO ARDURADUNA (Emakume Abertzale Batza)	(33) BATUTAKO DIRUA
ARANZAZU	Batzokia	Ignacio Atucha	Evaristo Arteche	—————	22 pezeta
AREATZA	Batzokia	Santiago Berriozabal	Miguel Isasi	Maria Zamacona	260,60 pezeta
ARTEA	Juventud Vasca	Juan de Lariz Ipina	Narciso Gorostiaga	Carmen Bilbao	—————
BEDIA	Aberri-Etxea	Baltasar Larizbeascoa	Gregorio Uriarte	Maria Zenarruzabeitia	—————
DIMA	Batzokia	Agustín Artabe	Dionisio Iturbe	Juanita Echevarria	—————
IGORRE	Batzokia	Lorenzo Uxanguren	Nicasio Ibarrodo	Dolores Luzuriaga	207,85 pezeta
LEMOA	Batzokia	Pedro Olivares	Felix Municha	Angelita Goyarrola	—————
ZEANURI	Batzokia	Jesús Inchaurrega	Domingo Manterola	Soledad Inchaurre	—————

III ERASKINA  
(34)

1936KO. EUSKO ALDERDI JELTZALEKO «LAGUNTZA EGUNA»REN ERAKETA ARRATIA (MAIATZAK 30-31)

			ORDEZKARIAK		
HERRIA	NON	BATZOKIKOA	U.B.B.-KOA (Uri Buru Batzarra)	E.A.B.-KOA (Emakume Abertzale Batza)	BATUTAKO DIRUA
ARANZAZU	Batzokia	Ignacio Atucha	Gregorio Echezarraga		44,60 pezeta
AREATZA	Batzokia	Lucio Astondo	Pablo Ugarte	Miren Zamacona	244,75 pezeta
ARTEA	Batzokia	Julian Zubikarai	Marcelino Larrinaga	Karmele Bilbao	106,45 pezeta
BEDIA	Aberri-Etxea	Matias Lecue	Leandro Leiza	Maria Zenarruzabeitia	81,50 pezeta
DIMA	Batzokia	Pablo Echezarreta	Eduardo Amorrortu	Josefa Echebarria	100,30 pezeta
IGORRE	Batzokia	Luciano Echebarria	Antonio Olazarri	Isidora Mimenza	149,25 pezeta
LEMOA	Batzokia	Esteban Echevarria	Felix Municha	Ines Azueta	425,25 pezeta
ZEANURI	Batzokia	Emilio Sagama	Justo Sagama	Soledad Inchaurre	182,50 pezeta

## IV. ERASKINA

1936KO HAUTESKUNDE OROKORRAK	
EUSKO ALDERDI JELTZALEKO HERRI BAKOITZEKO ARDURADUNAK (35)	
HERRIA	HERRIKO ARDURADUNA
ARANZAZU	Gervasio Uria Bicandi
AREATZA	Manuel Sopelana Zamacona
ARTEA	Manuel Espinosa Sagarduy
BEDIA	Diego Mintegui Meñica
DIMA	Jose Atucha Gortazar
IGORRE	Timoteo Atucha Petralanda
LEMOA	Felix Municha Garamendi
ZEANURI	Felipe Manterola Urigoitia

V. ERASKINA


(36)

EUSKO ALDERDI JELTZALEKO ARRATIAKO URI BURU  
BATZARRETAKO AGINTARIAK


HERRIA	LEHENDAKARIA	IDAZKARIA	DIRUZAINA
ARANZAZU	Juan Inchausti Artabe	Gregorio Echezarraga Gorostiaga	Guillermo Lecue
AREATZA	Manuel Sopelana Zamacona	Pablo Ugarte Charterina	Jose Maria Iturbe Pujana
ARTEA	Narciso Gorostiaga del Barrio	Juan Espinosa Sagardui	Eugenio Bereciartua Ortuzar
BEDIA	Leandro Leiza Ilardia	Diego Mintegui Medica	Eusebio Ecenarro
DIMA	Antonio Uriarte Zabala	Antonio Gordejola	Estanislao Bustinza Lekue
IGORRE	Antonio Olazarri	Timoteo Atucha Petralanda	Eustaquio Beascochea Oliden
LEMOA	Felix Municha Garamendi	Daniel Arregui Larrazabal	Alejo Ereño Arzubia
ZEANURI	Eleuterio Goicoechea Goicuria	Justo Sagarna Goicoechea	Raimundo Pujana Echeandia




HAUTESKUNDE OROKORRAK 1923KO APIRILAK 29 («Cortes»etarako Diputatuen aukeraketa) (37)	
HAUTAGIAIAK	A = Abertzalea: Teodoro Arozena Muñozuri (C.N.V.) E = Ez Abertzalea: Victor Chavarri Anduiza (Liberala)




ARANZAZU .




AREATZA .




ARTEA .




BEDIA .




DIMA .




IGORRE .



LEHOA .




ZEANURI .




ARRATIA .


LURRALDE HAUTESKUNDEAK 1923KO EKAINAK 10 (38)	
HAUTAGAIAK	<p>A = Abertzaleak: Luis M.<sup>a</sup> Larrea, Fernando Malax, Echevarria, Jose M.<sup>a</sup> Rotaetxe (E.A.J.)</p> <p>E = Ez abertzaleak: Alejandro Larrea, Enrique Ornilla, Manuel Alonso (Monarkizaleak)</p>




ARANZAZU .




AREATZA .




ARTEA .




BEDIA .




DIMA .




IGORRE .



LEMOA .




ZEANURI .




ARRATIA .

UDAL HAUTESKUNDEAK 1931KO APIRILAK 12
A = UDALEKO ZINEGOTZI ABERTZALEEN EHUNEKOAK
E = UDALEKO ZINEGOTZI EZ ABERTZALEEN EHUNEKOAK




**ARANZAZU.**




**AREATZA.**




**ARTEA .**




**BEDIA .**




**DIMA .**




**IGORRE .**



**LEMDA.**



**ZEANURI.**




**ARRATIA.**


HAUTESKUNDEAK ARRATIAN (1923-1936)

HAUTESKUNDE OROKORRAK 1933KO AZAROAK 19


HAUTAGAIK	A = ABERTZALEAK:	J.A. AGIRRE LEKUE, H. DE LA TORRE LARRINAGA (E.A.J.).
	E = EZ ABERTZALEAK:	M. OREJA ELOSEGUI, JOSE M. <sup>a</sup> AREILZA MARTINEZ (TRADIZIONALISTAK) E. ERKOREKA Y REGIL, J. BUSTOS APOITA (ERREPUBLIKARRAK)




ARANZAZU.




AREATZA.




ARTEA.




BEDIA.




DIMA.




IGORRE .



LEMOA .




ZEANURI .




ARRATIA.


HAUTESKUNDE OROKORRAK 1933KO OTSAILAK 16		
HAUTAGAIAK	A = ABERTZALEAK:	J.A. AGIRRE LEKUE, H. DE LA TORRE LARRINAGA, J. JAUREGI (E.A.J.)
	E = EZ ABERTZALEAK:	J.L. GAYTAN DE AYALA Y COSTA, MARTINEZ RIVAS (TRADIZIONALISTAK) P. GOMEZ BELTRAN, A. ESPINOSA ORIVE (FRENTE POPULAR)




**ARANZASU.**




**AREATZA.**




**ARTEA .**




**BEDIA .**




**DIMA .**




**IGORRE.**



**LEMOA .**




**ZEANURI .**




**ARRATIA.**


HAUTESKUNDE BILAKAERA I




ARANZAZU.



AREATZA.




ARTEA.




BEDIA.


HAUTESKUNDE BILAKAERA II




DIMA.



IGORRE.




LEMOA.




ZEANURI.

HAUTESKUNDE BILAKAERA III



ARRATIA .



ARRATIA ABERTZALE BOTOAREN BILAKAERA



**OHARRAK**

SIGLEN ESANGUREA:

A.H.N.S. = Archivo Histórico Nacional, Sección Guerra Civil.

B.O.P.V. = Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya.

- (1) Igorreko batzokian gazte honeek agertzen dira.
- (2) A.H.N.S. Secc. Politice-social BI-177.
- (3) «Euzkadi» egunkaria. 1936ko Martxoak 5.
- (4) 1933ko E.A.J.-ko Bizkai Buru Batzarraren txostena. A.H.N.S.- Secc. Propaganda, folleto n.º 3.532, 34. orr.
- (5) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-245.
- (6) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-161.
- (7) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-126.
- (8) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-126.
- (9) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-177.
- (10) Bediako Udal Artxiboa - Agirien Liburua, 1928-1931, 305-309 orr.
- (11) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-134.
- (12) 1933ko E.A.J.-ko Bizkai Buru Batzarraren Txostena, A.H.N.S.- Secc. Propaganda, folleto n.º 3.532, 34. orr.
- (13) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-126.
- (14) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-177.
- (15) «Euzkadi» egunkaria, 1933ko Apirilak 23.
- (16) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-134.
- (17) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-126.
- (18) Lemoako Udal Artxiboa. Batzarren Agirien Liburua, 1924-1931, 159-161 orr.
- (19) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-156.
- (20) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-177.
- (21) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-245.
- (22) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-156.
- (23) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-177.
- (24) Aranzazuko Udal Artxiboa. Agirien Liburua 1931: 213-215 orr.
- (25) Areatzako Udal Artxiboa, Agirien Liburua 1931.
- (26) Arteako Udal Artxiboa, Agirien Liburua 1921-1935; 230 orr.
- (27) Bediako Udal Artxiboa. Agirien Liburua 1928-1932; 305-309 orr.
- (28) Dimako Udal Artxiboa. Agirien Liburua 1922-1936; 217-220 orr.
- (29) Igorreko Udal Artxiboa. Agirien Liburua 1922-1932; 293 orr.
- (30) Lemoako Udal Artxiboa. Batzar Agirien Liburua 1924-1931; 159-161 orr.
- (31) Zeanuriko Udal Artxiboa. Agirien Liburua 1922-1932; 533 orr.
- (32) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-245.
- (33) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-103.
- (34) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-149.
- (35) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-177.
- (36) A.H.N.S.- Secc. Politice-Social BI-160.
- (37) B.O.P.V. 1923. urtea, 441 orr.
- (38) B.O.P.V. 1923. urtea, 603 orr.
- (39) B.O.P.V. 1933. urtea, 1.164 orr.
- (40) B.O.P.V. 1936. urtea, 173-176 orr.

## BIBLIOGRAFIA

- AGUIRRE, J.A. de: «*Entre la Libertad y la Revolución*», 1930-1935. Bilbao 1936.
- FUSI AIZPURUA, J.P.: «*El problema vasco en la II República*». Madrid 1979.
- GARCIA DE CORTAZAR, F. y MONTERO, M.: *Historia de Vizcaya*. San Sebastián 1980.
- LOPEZ ADAN, E.: «Beltza». «*El nacionalismo Vasco (1876-1936)*». San Sebastián 1977.
- MUGARZA MECOLALDE, D.: «*El decenio crítico. La política y la guerra en el País Vasco entre 1930 y 1940*». Oñate 1974.
- PAYNE STANLEY, G.: «*El Nacionalismo Vasco, desde sus orígenes a E.T.A.*». Madrid 1974.
- UGALDE, M. de: «*Nueva síntesis de la Historia del País Vasco*». Bilbao 1983.
- YBARRA, J. de: «*Política nacional en Vizcaya*». Madrid 1948.